

Ispilua



UXUE APAOLAZA LARREA

Non gordetzen dituzu kudeatu ezin izan dituzunak? Badago pilularen bat ondorioak arintzeko? Orfidalak, adibidez? Bestela? Ezkutatu beharko dituzu ile urdinak, ileak oro har (aurpegikoak, zangoetakoak, besazpietakoak, pototakoak, titietakoak, zilbor azpikoak...), zimurrak, umore txarra, begi zuhoak. Zahartzeak eta nekatuta egoteak sortzen duen hori guztia, alegia; erakustea zigortzen den guztia, beraz (pentsa erotuta bazaude, pobrea bazara... zenbat ezkutatu beharko duzun). Esternaliza ditzakezu kolpeak? Baduzu Dorian Grayren ispilua moduko zerbait?

Eta gizartean, zer gordetzen dugu? Zer ez zaigu ikustea gus-tatzen? Zer gero eta gutxiago? Zabortegiak, beti. Erraustegiak. Usaina, kutsadura... isilean eta arinduta iristen zaizkigu, fabriketako kearen moduan. Zaborra, eta kea. Eta ospitaleak ere jartzen ari gara kanpoaldean; lehen arreta desagertzen ari de-nez, beharrik ez, ospitalera joango gara karkaxak eskutan. Non daude CIEak? Non daude gurasorik gabe iristen diren haurrak? Ikusten dituzue? Nola tratatzen ditugu? Ondo jaten dute? Kar-tzelak ere gero eta urrunago nahi ditugu, ikusten baditugu, nahi gabe, noizean behin, hor jendea dagoela gogoratzen baitugu bestela. Jendea, gu bezalakoa. Zer egiten dieten jakin nahi ez dugun jendea. Inporta ez zaigun jendea ez, beldurtzen gaituena, geure burua direnez. Zer kanporatuko dugu hurrena? Non ez dakigu zer gertatzen den? Zerk beldurtzen gaitu? Zahartzaroak? Barrurantz nahiko ezkutatuta daude orain ere, zahar etxeak, pandemia batzuk hiltzea erabaki zuten zenbait lekutan, eta ez da ezer gertatu: noizbait, atera beharko ditugu horiek ere kan-pora, Gipuzkoan, Zubietara, pentsatzen dut.

Dorian Grayk, ordea, egun batean, bere burua ikusi zuen, baita gainerakoek ere, guztiz esternalizatu zuenean dena. Guztiz esternalizatu zuenean bizitza. Hil zenean, guztiz. ●



MOTZEAN

► Euskadiko Basogintza Elkar-teen Konfederakundeak bultzatuta, CO2aren borondatezko merkatu bat sortu nahi dute Euskadin 2024an. Merkatu honetan, basozain txikiei zuhaitzen karbonoa erosteko aukera izango dute euskal enpresek, haien karbono aztarna gutxiagotzeko, EHUK jakinarazi duenez.

► Herriko azokan postua jartzen duten baserritar jubilatuei isun ekonomikoak ezartzen ari zaizkio Gizarte Segurantza, baita bi hilabeteko pentsiorik gabeko zigorrak ere.

► Ur botilen enpresa batzuen praktika ilegalak salatu dituzte ikerlariak Frantzian. Nestlé enpresak bere uraren kutsadura estali du, debekatutako garbiketa metodoak erabili.

► Tel Aviveko Maccabi eta Saski Baskoniaren arteko partidu osoan zehar Palestinako banderak erakutsi eta "genozidioa" oihukatu zuten, Israeli Boikot-en protestarekin bat eginez.

► Euskarazko hizkuntza eredu handiena eta librea sortu du Hitz Zentroak: Latxa. LLM edo hizkuntza eredu handi bat da, adimen artifizialeko ekimenek oinarrian duten super-datubasea.